

«EGILE 1»-ek INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

(1) ESKATZAILEA:

Inskripzioa eskatzeko aukera dutenak ondorengo hauek dira: obraren egileak, gainerako jatorrizko titullarrak, eta obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen ondorengo titullarrak.

- Egilea edo titullarra pertsona bakar bat denean, hura ageriko da eskatzaile gisa, eta berak sinatuko du.
- Egile edo titullarrak bat baino gehiago direnean, bat ageriko da eskatzaile gisa (jakinarazpenak jasotzeko), baina guztiek sinatu beharko dute inprimakia.
- Eskubideen titullarra pertsona juridiko bat denean, horren legezko ordezkaria ageriko da eskatzaile gisa, eta berak sinatuko du inprimakia. Betiere, dokumentu bidez egiaztatu beharko du ordezkari hori.
- Egilea edo titullarra adingabea edo ezindua denean, bere gaineko guraso ahala, zaintza edo kuradoretza duena ageriko da eskatzaile gisa.

(2) OBRAREN IZENBURUA:

Inskribatu beharreko eskubideen objektu den obraren izenburua adierazi. Identifikatzeko alean ageri den izenburu berbera ipini.

(3) EGILEA(K):

Obra sortu duen pertsona fisikoa da. Egile bakarra egonez gero, «**egile bakar bat**» laukitxoa markatu. Eskatzailea ez bada egilea, adierazi bere datu pertsonalak inprimakiaren dagokion atalean. Egileak bat baino gehiago izanez gero, «**egile batzuk**» laukitxoa markatu, eta adierazi horien datu pertsonalak **EGILEAK 1 inprimakiaren eranskinean**.

(4) ESKUBIDEEN TITULARRA:

Obraren egilea edo egileak dira eskubideen titular, eskubideak hirugarren bati transmititu dizkionenean salbu. Eskubideen titularra egilea bada, dagokion laukitxoa markatu. Eskubideen titularra beste pertsona bat bada –egileak transmisio baten bidez eman dizkiolako–, dagokion laukitxoa markatzeaz gain, adierazi eskubideak jaso dituen pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak.

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK:

PERTSONA FISIKOEN:

NANaren fotokopia. Atzerritarren kasuan, nortasuna egiaztatzeko beste edozer dokumenturen fotokopia.

Hala ere, bai espainolek, bai Espainian bizi diren eta Espainiako agintariek emandako dokumentua duten atzerritarrek, identifikazio pertsonala egiaztatzeko berriazko baimena aurkez dezakete. Horretarako, **Nortasun Datuak Egiaztatzeko Baimena** izeneko eredu erabili beharko dute.

PERTSONA JURIDIKOEN:

Honako dokumentu hauen jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua:

- Nortasun juridikoa egiaztatzen duen titulua.
- Erakundeko pertsona juridikoaren txartela (IFK).
- Inskribatzeko eskabidea erakundearen izenean sinatzen duen pertsona fisikoak duen ordezkatzeko ahalordea.

ORDEZKARIEK:

Eskatzailea ez bada eskubideen titular, egileek edo titularrek emandako ordezkatzeko ahalordea. Ahalorde hori eskritura publikoaren bidez edo dokumentu pribatu bidez eman daiteke, Ordezkatzeko Ahalordean notarioak edo Erregistroko funtzionarioak legitimatutako ahalorde emailearen sinadurarekin.

ADINGABEEK ETA EZINDUEK:

Familia liburuaren edo guraso ahala, zaintza edo kuradoretza egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.

ESKUBIDEAK TRANSMISIO BIDEZ JASO DITUZTEN TITULAR ESKURATZAILEEK:

INTER VIVOS TRANSMISIOETAN

- Eskritura publikoaren lehenengo kopia, edo transmisioak egiaztatzen dituen dokumentu pribatuaren originala. Horien ezean, kopia sinplea, notarioak edo Erregistroko funtzionario publikoak egindako sinadura legitimazioarekin. Inskripzioa egiteko beharrezko diren datuak edukitze aldera, kontratuak honako alderdi hauek berriaz barne hartzea komeni da:
 - Lagapena eskusiboa den edo ez.
 - Lagapenaren iraupena.
 - Lurralde eremua.
 - Lagatzen diren ustiapen eskubideak.
 - Ustiatzeko moduak.
 - Lagapenaren prezioa.
- Dagokion zerga ordaindu izana egiaztatzen duen dokumentua, Ogasun Publikoan likidazioa egiteko aurkeztu izana egiaztatzen duena, edo salbuetsita dagoela egiaztatzen duena.

MORTIS CAUSA TRANSMISIOETAN

- Jaraunspena esleitu eta onartu izanaren eskritura publikoa. Eskritura horretan, espresuki egon behar du jasota transmititzen diren jabetza intelektualaren eskubideen xede diren obrak.
- Egilearen heriotza agiria.
- Azken Borondateko Ekintzen Erregistroaren ziurtagiria.
- Baliozko testamentua edo, horren ezean, notarioaren nabaritasun akta edo jaraunspenaren adierazpen autoa.
- Dagokion zerga ordaindu izana egiaztatzen duen dokumentua, Ogasun Publikoan likidazioa egiteko aurkeztu izana egiaztatzen duena, edo salbuetsita dagoela egiaztatzen duena.

LAN HARREMANAREN ONDORIOZKO TRANSMISIOA

- Egileak eta enpresak sinatutako lan kontratuaren kopia konpultsatua.
- Inskribatu beharreko eskubideen xede den obraren egilearen adierazpena. **Soldatapeko Egilearen Adierazpena** eta **Ordenagailuko Programen Soldatapeko Egilearen Adierazpena** izeneko ereduak baliatu beharko ditu horretarako. Bertan, adierazi beharko du obra hori lan harremanari jarraiki sortu dela.

ESKUBIDEAK TRANSMITITZEKO BESTE MODU BATZUK

- Bat egitea edo zatiketa jasotzen duen eskritura publikoa edo egiaztagiria.
- Ebazpen administratiboaren edo erabaki judicialaren testigantza, edo horren kopia konpultsatua.